



ERESIA

lurra arim bekizu, ama.

ERESIA

*Hildakoei gorazarre eginez kantatzen
ziren bertsoak dira Eresiak. Gehienetan
emakumeek kantatu zituzten poemak.
Orain, jada, ez dugu kanturik hildako ama
agurtzeko.*



ARTISTIKOA

Amaren heriotzak bultzatuta, dolu errituen inguruko gogoeta egiten duen ikuskizun eszenikoa da Eresia. Proiektu honen ideia eta sustapena Oier Zuñiga sortzaileak bultzatua da.

UDALBILTZAren *Guretik Sortuak* Beka eskuratuta, sormen prozesua Elgeta, Antzuola eta Bergara herrietan garatu da.

Idea originala eta zuzendaritza
OIER ZUÑIGA

Antzezleak
ENEKO GIL
BELEN CRUZ
OIER ZUÑIGA

Soinu eta argi teknika
MIKEL UNAMUNZAGA

Argi diseinua
FERMIN IZKO

Jantziak
FRAN DUSSOURD

Eszenografia
OREKARI ESTUDIOA

Kantugintza
IHITZ IRIART

Argazkiak
NAGORE LEGARRETA

Diseinua eta maketazioa
OIER ZUÑIGA

TEKNIKOA

Ama hil da, hori da egia. Kantu bat, dantza bat, erritu bat... lore bat eskaini nahiko nioke. Hildakoei gorazarre egiteko abesten ziren bertsoak dira Eresiak, baina nik jada, ez dut kanturik hildako ama agurtzeko.

Maite dugunaren heriotza datorrenean, zer egin?
Nola agurtu?
Nola begiratu bizitzari?
Maitasuna da akaso guztiaren erantzuna?

Ohiko dolu errituak nahikoak ez direnaren sentsaziotik abiatuta, dispositibo poetikoen bidez bestelako dolu praktika esperimentatzeko xedea nuke, ekintza eszenikoa bera, dolu erritu kolektibo bilakatuz.



SINOPSISIA

OIER ZUÑIGA


Iruñea

Oier Zuñiga Iruñean bizi den aktore eta artista bisuala da. Bertatik garatu du azken zortzi urteotan jarduera artistiko profesionala. Ilustrazioa-arte plastikoetan eta arte eszenikoetan egin du bereziki ibilbidea, performance artearen ikerketan murgiltzeak egin ditu azken aldian.

Arte dramatikoko ikasketa profesionalak egin zituen ENT-NAEn eta Arteko Gradua EHUUn. Proposamen eszeniko ezberdinetan egin du lan, bai eta ilustrazio aplikatuko proiektuak, proiektu artistiko pertsonalak eta arte bisualetako lanak garatu ere. Jarduera profesionala zein biziduna artearen ikuspegitik praktikatzeko du. Inguratzen duen hori, praktika artistikoaren bidez ulertzea interesatzen zaio. Lanari ekiteko, inguratzen duen lurraldearen kontzepzioak, bai adierazpen zein desira politiko- kulturaletan, bultzada sortzailearen oinarri ditu. Horren guztiaren ondorioz, uztartu egin ditu arte arloko jarduera profesionala eta elkarte eta herri-adierazpen kulturaletan parte hartzea.

Azkeneko bi urteetan Iruñeko libertimendua *“Iruinkokoa”* zuzentzen ibilia, baita Artedrama-Axut- Dejabu konpainiekin *Zaldi urdina* antzezlanean lan egin ere.

Inextremis konpainia nafarraren sortzailetako bat, produkzio propioak garatu eta ekoitzi ditu, *Medida por medida* eta *La prueba* antzezlanak besteak beste. Aurretik Ados teatroa, La nave eta P.Maestras konpainiekin lan egin du hainbat ikuskizunetan; Garbi Losada, Pedro Miguel Martinez edo Emi Ekairen zuzendaritzapean.



BELEN CRUZ

Donostia

Eskarmentu handiko aktorea dugu Belen. Euskal antzerkiaren hastapen hamarkadetan profesioan hasitakoa. Arte eszenikoetan diplomatua, Antzerkin hain zuzen ere. Hika konpainiaren sortzaileetarikoa izan zen eta hainbat konpainietan lan egin du: Ur teatro, Ados, Theatre du Rivage, Atx Teatroa, eta Nomofobikak.

TAEko irakaslea izan da 25 urtez, antzerki ikasle ehunaka formatuz. 2019 urtean, *"Anarkia relacional"* idatzi eta antzeztu zuen Mila Espiga nafar antzezlearekin batera. Azken antzezlana du taula gainean orain, Hackerrak, Ana Perezek zuzendua.

Antzerkigintza du gustukoen, baina telebistan eta zinean ere ibili da. *Goenkalen* bi denboraldi eta garaietan ibili zen. Honez gain zinema eta bestelako ikus-entzunezkoetan ibili da. Hala nola, *"Celda 211"*, *"Patria"*, *"Alguien tiene que morir"* eta *"Alardea"*.



ENEKO GIL

Orereta

KUKAI dantza konpainiako kidea da honen sorreratik eta besteak beste, honako dantza ikuskizunetan parte hartu du: *1937*, *gogoaren bidezidorretatik* (2001), (Arte Eszenikoen Max sarietara izendatutako ikuskizuna, Errebelazio Ikuskizun bezala eta Donostia Antzerki Saria jaso zituen). Konpainia honekin sortutako azken piezan, *ERRITU* Sharon Fridamen zuzendaritzapean, parte hartze nabarmena izan zuen Enekok, Max Sarietan Gizonezko Dantzari Onena kategorian izendatua izan zelarik.

American Dance Festivaleko egonaldian Miamiko Rosie Herrera koreografoarekin lan egiteko hautatua izan zen.

Bestelako taldeetan lan eskarmentu luzea du; dantza, gorputz mugimendua eta antzerkiaren arteko mugetan ibili delarik maiz. *ERTZA* dantza/antzerki konpainiarekin lan egin du Asier Zabaletaren gidaritzapean. *Bihar jaio nintzen* (2008) pieza sortu eta Madrilgo Koreografia Lehiaketako finalera iritsi zen. Bertan egindako lanagatik, Enekok "Premio a un bailarín sobresaliente" saria jaso zuen. Era berean, gaur egun Myriam Perez Kazabon koreografoarekin dabil lanean *Mutu* eta *Hiru* piezetan eta Hika Teatroak estreinatu berri duen *Tonbola* ikuskizunean parte hartu du aktore-dantzari moduan.





*Ez zaitez, ez zaitez,
Ez zaitez joan oraindik.
Ez zaitez, ez zaitez,
Ez zaitez urrun nigandik.*

PROIEKTUAREN BEHARRAZ



Arte bizien, performancearen edota antzerkiaren kodeak zeharkatuz, dolua landu eta berau osatzeko errituak ber-eraikitzean datza proiektua. Mota askotariko errituak dauzkagu gure herrian; hasi tradizioak ekarri dizkigunetatik, egun praktikatzen diren erritu garaikideetaraino. Doluak dakarren hutsunea, mina, osatu eta baretzeko espazioak beharrezkoak ditugu. Lehen tarte batean noski, espazio intimoak eta kanon batzuen arabera antolatutako erritu funtzionala-ukigarriak. Baina gutxitan erreparatzen diogu bestelako espazioei, hala nola sinbolikoari, estetikoari edo afektiboari. Alta, senide bat galdu dugunean, erritu sozialak modu nahiko azkarrean eta hausnarketarako aukera gutxiarekin ematen dira, ibilbide pertsonal eta intimoari eraginez; gerora, min hori, ezinegona edota bestelako prozesu pertsonalak plaza publikotik atera eta eremu bakartira mugatzen dira. Zehazki gaiaren inguruan, heriotzari zein doloan dauden pertsonen estalki moduko bat osatuz.

ERESIA ikuskizunak, doluari espazio sinboliko-estetikoa eskaini nahi dio eremu publiko eta komunitarioan. Herrian bertan heriotzak dakarren minaz era publikoan eta kolektiboan hausnartzeko parada eskainiz. Prozesu emozional eta sozial konplexua izanik, berau osatu eta baretzeko molde bezain beste pertsona daude noski, proiektu honek molde bat eskainiko du.

Dolua arintzeko asmoz, arte praktiken bidez, nahi bezain besteko dispositiboak aktibatzekeo aldarria da ere. Halako egoeretan bizitakoaren errepresentazioa baino, dolua osatzeko ibilbidea esperientzia multifuntzionaletan garatzeko praktika izan nahi du. Galdu dugun senideak utzitako hutsunea berrosatzeko, errituek bete dezaketen lekuari so eginez, hauek berrasmatu eta era askotara bizitzeko gonbita da.

Eskerrak Amari. Bideari.

*Iasone Parada, Artedrama, Urko
R. Pescador, Ainara Gurrutxaga,
Miren Alkala, Dejabu, Ioar
Cabodevilla, Xabi Urroz, Orekari,
Fermin Lorda, Xabier Vallina, Olatz
Beobide eta Ximun Fuchs.*

Off Ahotsak:

*Mikel, Inma, Gorka, Mirari,
Garbiñe, Anamari, Ane, Geaxi,
Amaia, Ibai, Iker...*

*Horren ongi hartu gaituztenei,
Maialde, Ibarre, Barrenengua.*

*Elgeta, Antzuola eta Begarako
Udalei.*



OIER ZUÑIGA

zunigaoier@gmail.com



